

Elgoibar - 1297. zenb.
XXX urtea - 2023-09-08




TOKIKOM

BARREN



FotoIosu Photography

Arantza kendu du



1. 3D EHUNA
2. AIRFILL
3. BABES-ZORROA
4. ATSEDEN INDEPENDENTEA
5. NUKLEO ITZULGARRIA
6. DESFUNDAGARRIA
7. ERGONOMIKOA



ALTZAIRUZKO MILAN
OHE ARTIKULATUA

Luzera: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioa: 685€ | 745€ | 990€ | 1035€



180 cm-ko luzerako koltzoletan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

2024ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA



■ **GAIA:** "ELGOIBARKO GIZARTE, KULTURA ETA KIROL ARLOETAKO ELKARTE ETA TALDEEK ANTOLATUTAKO OSPAKIZUNAK ETA JARDUERAK". Argazkia Elgoibarren eta 2022ko urritik aurrera ateratakoa izan beharko da.

■ **PARTE-HARTZAILEAK:** Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenak

■ **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

■ **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

■ **LANAK AURKEZTEKO LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:

- a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira: "Elgoibarko egutegia 2024" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira. Helbidea: Aita Agirre (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua.
- b) Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita (943 744 366).

■ **ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2023ko urriaren 6ra arte.

■ **SARIA:** Hamahiru argazki sarituko dira, bakoitzak **80 euroko bonua** jasoko ditu.

■ **LEHIAKETAREN OINARRIAK:** elgoibar.eus



Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat.

EUSKARA,
bidaia
harrigarria

#euskarharrigarria

MATRIKULA ZABALIK

Matrikulaldia: Irailaren 4tik 26ra

IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat.

Langabetu, jubilatu, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**. Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero).

Informa zaitetz Udal Euskaltegiari!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30

2023-2024

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Eburne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Alex Segade

Kazetaria

Benetako beldurra



"Autoari edo motoari azterketa tekniko egiteko garaia gerturutzen denean hasten gara nolabait kezkatzen"

Badago denoi beldurra ematen digun zerbait. Ez da animalia bat, ezta gaixotasun bat edota egoeraren bat ere. Bueno, errenta aitortpenari denok diogu beldurra, ordaintzea edo kobratzea egokituko zaigun, baina ez da hori gaurko auzia. IAT-ITVari buruz ari naiz.

Sekulako *psicosia* daukagu IAT-ITVarekin, ezta? Autoari edo motoari azterketa tekniko egiteko garaia gerturutzen denean hasten gara nolabait kezkatzen: "Joe... berehala autoari azterketa tekniko egitea dagokit... espero dut lehenengoan pasatzea...". Eta hitzordua hartzen dugunean mentalizatzen hasten gara: "Egon lasai, dena ondo dauka... ezinezkoa da zerbait txarto egotea...". Normala da beldur hori izatea. Oso *tikismikis* jartzen dira beti, ez da ezer berria, eta edozer arazotxorengatik atzera botatzen dute azterketa. Nik benetan ez dudala ulertzen zergatik ibiltzen diren hainbeste tontokeriarekin. Autoak frenatzen al du? Bai. Argiak ikusten al dira? Bai. Ez da zatika apurtzen, ezta? Ez. Orduan, zergatik hainbeste traba? Askotan mafia bat direla ematen du eta jendeari dirua kentzeko baino ez daudela.

Egia da kotxe ziztrin asko daudela errepidean arriskutsuak direnak, baina kasu gehienetan auto normalak pasatzen dira eta, hala ere, atzera botatzen dituzte. Motoekin, adibidez, kasu askotan gertatzen da norberak azterketa tekniko egin behar duenak baino gehiago jakitea, askok motoei buruz ez daukatelako ideiarik ere. Gertatu zitzaidan behin motoari azterketa tekniko egin zionak gasen emisioa oker neurtzea. Motor baten eta kotxe baten gasen parametroak ez dira berdinak, eta tipo hark nire motoa auto bat balitz bezala neurtu zuen. Motoak ez zuen gasen azterketa hori gaintitu, noski.

Azken finean, zorte ona izatea da. Pertsona jator bat tokatzen bazaizu, agian ibilgailuak akatsen bat izan arren, balekoa emango dizu. Hala ez denean, haserre buelta zaitetzke etxera.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Larrain dantza

San Bartolome jaietan larrain dantzaren ekimenak urte batzuk baditu jada eta esan daiteke bere lekua egin duela azken urteetan, idatzi gabeko usadio bat baillitza. Jaien atariko gisa eta ohiko ekintzen barnean aspaldi txertatua balego bezala, ohitura zaharrek duten sotiltasunez, lauzpabost urte baizik ez badira ere abian jarri zela.

Aurten ere, bi hitzordu izan ditugu: bezpera egunean, txupinazoa baino lehen, Elgoibarko Kalegoen plaza ederrean, agerikotasun osoz; eta San Bartolome egun arratsean Mahalako parkeko estalpean dultzaina jotzaile eta txarangak lagundurik. Biek dute beren xarma eta erakargarritasuna honelako elkarretaratzeak maite ditugunontzat.

Lerro hauen bidez, ekimen hau burutzea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi nizkieke (aurrez barkamena eskatzen dut norbait aipamenik gabe uzten badut), parte hartzen duten gainerateko lagunek ere honako asmoarekin bat egingo dutelako ustean:

Eskerrak Haritz Dantza Taldeko kideei, beren jakituria gurekin pazientzia eta aldarte onez partekatzeagatik. Eskerrak Iera, Eneko, Markel,

Jon,... eta beste kide guztiei, eta zorionak Haritzen 50. urteurrenarengatik. Eskertza bikoitza, beraz, ekintzaz betea duzuen urtean betiko prestutasunez tokia egiteagatik larrain dantza herrikoari zuen agendan;

Eskerrak Elgoibarko dultzaina jotzaileei. Txomin, Aitor,... Betiko adeitasun eta dotoreziaz erantzuteagatik;

Eskerrak Mauxitxari, txaranga soinuak Mahalako ekitaldiari eskaintzen dion originaltasun eta alaitasunarengatik;

Eskerrak udalbatzari beren babes eta partehartzearengatik. Esker berezi bat erakutsi duten hurbiltasunarengatik;

Azkenerako utzi dut eskertza bereziena, ekimen honen buru eta arima denari luzatu nahi (ge)niokeena. Milesker handi bat Jon Arrieta adiskideari, bere gogo-bihotzetik sortu baita komunitate dantza eder hau Elgoibarren plazaratzeko ekimena. Berak antolatu ditu ikastaroak, kudeatu baimenak, eta lotu beharreko xehetasunak lotu. Bakoitzari berea, eta zor zaion errekonozimendua. Biba hi!

Jon Barandiaran

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359 www.uzurioptika.com

BETAURREKO GRADUATUAK

89€ . tik hasita
*galdetu baldintzak

IKASBAI AKADEMIA **MATRIKULA DOAN**

MATRIKULAK ZABALIK
2023/2024 IKASTURTE

ESKOLA PARTIKULARRAK

- Ikasgai guztiak
- LH/DBH
- Talde txikiak

667 261 248
BASARTE 13, BEHEA, Elgoibar



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658




Sallobenteko komuneko lurra hondatuta dago:

"Sallobenteko komuna garbi egoten da, baina zaharkituta dago eta konponketaren bat egiteko beharra dauka. Lurra, esaterako, hondatuta dago. Sallobentera bezala, Maltzagako bide gorrira ere askotan joaten gara paseatzera, eta hango egoera okerragoa da, ez dagoelako komunik bide guztian. Bidea luzeegia egiten da pixagureari eusteko, eta oinezko asko jaisten dira errekarara pixa egitera, horrek daukan arriskuarekin. Udalera ere jo dugu arazo hau azaltzera, eta Foru Aldundiaren kontua dela erantzun digute. Eskertuko genuke gure eskaera lehenbailehen aintzat hartzea"



Txalo bero bat kalegarbitzaileentzat:


"Eskerrak eman nahi dizkiet San Bartolome jaietan kaleak garbitzen aritu diren langileei. Beste guztiok festan geunden bitartean, langile horiek sekulako lana egin dute, goizean goiz kaleak berriz ere garbi egon daitezten. Txalo bat, beraz, Udal Brigadako eta gainerako langileentzat".



Txalo bat sanbartolomeetan parte hartu duten Elgoibarko musika taldeentzat:

"Taldea handien hasierako gonbidatu lanak egin dituzte aurtengo jaietan Elgoibarko Musikarien Elkarteko hainbat taldek, eta maila bikaina eman dute guztiak. Elgoibarko musikarien harrobia sendo dago, eta horrek poza ematen du. Udalarari ere eskerrak eman nahi nizkioke, herriko musika taldeei eman dien aukeragatik".





Benita Olaizola Iriarte

2023ko abuztuaren 23an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



Gregorio de Las Heras Gamo

2023ko abuztuaren 28an hil zen, 81 urte zituela.

***Nahiz eta urrun joan,
gure artean izango zara beti.***

Elkarteko bazkideak




Ana Hidalgo Maturana

2023ko irailaren 2an hil zen, 57 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Borrokalari nekaezina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.***

Etxekoak



Mintxetako igerilekuen denboraldia astebetez luzatu dute, hilaren 17ra arte



Ekainaren 3an zabaldu zituzten Mintxetako igerilekuak, eta hasiera batean irailaren 10ean itxiko zirela iragarri bazuten ere, Elgoibarko Udalak Mintxetako uda denboraldia astebetez luzatzea erabaki du, irailaren 17ra arte. Udaletik jakinarazi dutenez, Mintxetako espazioa jende askok erabiltzen du eta herritar guztiei udako azken egunak ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera eman nahi diete. Aurten, beraz, uda denboraldiak bi aste gehiago izan ditu Elgoibarren, irekiera astebez aurreratu zutelako eta itxiera astebetez atzeratu. Denboraldirako bonua dutenek instalazio guztiak erabili ahal izango dituzte epe horretan.

Datorren astean zabalduko dituzte Mendaron ludoteka eta gaztelekua

Ikasturtea hastearekin batera zabalduko dituzte Mendaron ludoteka eta gaztelekua. Ludotekako ordutegia 17:00etatik 18:30era artekoa izango da, eta astelehenetik barikura arteko zerbitzua emango du HH5etik LH4ra arteko ikasleentzat. Irailaren 11tik 15era arteko astean, probatzeko aukera izango dute hurrek, nor bere egunean joanda (HH4koak martitzenetan, HH5koak barikuetan, LH1-LH2koak astelehen eta eguaztenetan, LH3-LH4koak eguenetan). Izena emateko udaletxera jo behar da. Informazio gehiagorako: 613 035 413 eta mendarokogaztelekuaetaludoteka@gmail.com.

Irailaren 15ean zabalduko dute, bestetik, gaztelekua, bariku, zapatu eta domeketan, 18:00etatik 20:00etara. DBH1-eko ikasleek eta DBHO1-ekoek (16-18 urte) erabili ahal izango dute zerbitzu hau. Era berean, Zubigazte egitasmoa ere jarriko dute martxan, LH5 eta LH6ko ikasleentzat, 17:00etatik 18:00etara, hilean bi zapatutan. Hauxe izango dute urteko egutegia: Irailean, 16 eta 23; urrian, 14 eta 21; azaroan, 11 eta 18; abenduan, 9 eta 16; urtarrilean, 13 eta 20; otsailean, 10 eta 17; martxoan, 10 eta 17; apirilean, 14 eta 21; maiatzean, 12 eta 19 eta ekainean, 9 eta 16.

Ion Zubiaurre, Debabarreneko Mankomunitateko presidente

Debabarrenako Mankomunitateko lehendakaria hautatzeko ezohiko batzarra egin zuten uztailaren 27an, eta Ion Zubiaurre Ros (Elgoibar, 1981) jeltzaleak hartu zuen kargua, lehendakaria aukeratzeko bozketan boto gehien jaso eta gero. Hurrengo lau urteetan beraz, bera izango da Mankomunitatearen ordezkari nagusia. Honakoa izango da agintaldi honetako Debabarrena Mankomunitateko gobernu batzordea: Ion Zubiaurre Ros, lehendakaria (Elgoibar, EAJ); Ana Telleria Echeverria, lehendakari ordea (Eibar, PSE). Batzordekideak: Iñigo Loyola Garate (Elgoibarko Udala), Anton Garai Berezibar (Debako



Udala), Inhar Mutiozabal (Mutrikuko Udala), Unai Larreategi Azurmendi (Soraluzeko Udala), Enez Ezenarro Arriola (Mendaroko Udala), Igor Aguirre Barrientos (Mallabiako Udala). Ermuko ordezkaria, izendatzeke dago.

Jabier Larrañaga Elgoibar Ikastolako zuzendariak erretiroa hartu du



Elgoibar Ikastolako zuzendari izan den Jabier Larrañagak erretiroa hartu zuen irailaren 6an, bere urtebetetze egunean, eta agurra egin zioten bere ibilbidean lankide izan dituen irakasle eta Ikastolako langileek. Elgoibar Ikastolako "erreferente osoa" izan dela nabarmendu dute Ikastolatik.

Langile ohiek eta gaur egungo lantaldekoek ikastolako erdiko aretoan bildurik egin zioten agurra Larrañagari. Kristina Bernalek aipatu zuen erreferente pedagogiko aparta izan dela Larrañaga, eta bere lanerako tinkotasunarekin batera ikastola norabide egokian jartzen asmatu izana aitortu zizkion.

Guztiek batera kantatu zioten habaneran, irakasle aldiaren egindako lana aipatu zuten, eta, batik bat, azken urteetan zuzendaritza taldean egindako ekarpenengatik nabarmendu zuten Larrañaga, ikasketa buru eta, batez ere, zuzendari gisa. "Bere eskutik etorri dira ikastolara azken urteetako berrikuntza pedagogikoak", adierazi dute.

Eta berriaz goza dezala opa diote: "Jakin badakigu zaletasunik ez duela falta horretarako. Aho batez kantatu diogun bezala, denbora libre zorian mugatzea izango du aurrerantzean eginkizun bakar. Eskerrik asko, Jabier".

Zuzendaritza Batzorde berria du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak



Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak zuzendaritza batzordea berritu du eta 11 emakumezko eta bi gizonezko osatzen dute orain: Maria Lourdes Beneitez (presidentea), Jose Luis Aldalur (lehendakari ordea), Maria Arrate Perez

(diruzaina), Ana Isabel Loiola (idazkaria), Maria Aranzazu Iruetagoiena, Montserrat Egaña, Lorenza Sanchez, Maria Regina Isasti, Maria Isabel Lariz, Maria Carmen Oliveira, Maria Garcia, Arantza Narbarte eta Juan Manuel Sanchez.

Izena emateko azken egunak Bizilaben, Bertso Eskolan eta Bota Literak tailerrear

Ikasturtea hastearekin batera hasiko dira baita ere eskolaz kanpoko jarduerak ere, eta horietako gehienetan zabalik dago izena emateko epea. Bizilabe egitasmoan, Bertso Eskolan edota Bota Literak literatur tailerrear izena emateko baina, irailaren 15era arteko epea dago. Udalak maiatzean zabaldu zuen Robotika eta Bizilaben izena emateko epea. Robotikako plazak bete dira, baina 10 urtetik 16ra bitartekoek oraindik badute aukera Bizilaben izena emateko. Urritik maiatzera izango dira saioak IMHn, eta ikasturtean zehar, esperimentu zientifiko eta teknologikoak egingo dituzte. Izena emateko webgune hau erabili behar da: <https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar>.

Bertso Eskolak ere zabalik ditu atea, 8 eta 16 urteko gazteentzat. Astean behin izaten dira saioak, Aita Agirre kulturgunean. Bota Literak klubeko gazteak ere astean behin biltzen dira Aita Agirren; bariku arratsaldeetan hain zuzen ere, 17:00etatik 18:30era. 11 eta 18 urte bitartekoak dute literatur klubean izena emateko aukera.



Bertso Eskolan zein Bota Literak klubean izena emateko Udaleko Euskara Sailera jo behar da: 943 744 366 edo euskara@elgoibar.eus

Landare exotiko inbaditzaileei buruzko hitzaldia antolatu du Baso Biziak taldeak datorren barikurako

Elgoibarko Baso Biziak taldekoek landare exotiko inbaditzaileei buruzko hitzaldia antolatu dute irailaren 15erako. Leire Paz Leiza (Biologian lizentziaduna eta kontserbazioan masterra) eta

Jon Zulaika Isasti (Gipuzkoako Foru Aldundiko Flora babestuaren arduraduna) izango dira hizlariak. Musika Eskolako auditoriumean izango da, 19:00etan.

Dolmenen ibilbidea ezagutzeko irteera egingo dute, domekan

Karakate eta Irukurutzeta bitartean dagoen Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua antolatu du Debegesak domekarako. Karakateko aparkalekutik abiatuko dira, 10:00etan, eta Irukurutzetara ingurura egingo dute joan-etorria. Izena emateko eskatu dute antolatzaileek, 657 794 677 telefonora deituta. Domekako bisita euskaraz izango da, eta irailaren 17an gaztelaniaz egingo dute.

Iraileko odol ateratzea egingo dute gaur Elgoibarren

Iraileko odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren. Ohi moduan, Jubilatuen Biltokian izango dira, 16:30etik 20:10era bitartean. Txanda eskatzeko whatsapp bidez mezua bidali behar da 623 328 408 telefono zenbakira (15:00etatik 20:00etara).

EUSKALTZAINDIAREN BI SARI, ELGOIBARRERA

Euskaltzaindiak euskarazko ahozko jarduna ikertzeko zortzi egitasmo saritu zituen maiatzean Mintzola egitasmoaren bitartez, eta horietako bat Ainhoa Leyaristi Oñederraren master amaierako lana izan zen, 'Hizkuntza nahasmenduaren aztarna bila euskaraz: kasu-marka eta aditz komunztadura izenburukoa'. Leyaristik iraila-urrian egitekoa du master amaierako lanaren defentsa, baina irailaren 29rako aurkeztu behar du proiektua Euskaltzaindian. Leyaristi ez da, ordea, sari hau eskuratu duen elgoibartar bakarra. Iaz, Ane Iriondo Arizmendiren gradu amaierako lana saritu zuen Euskaltzaindiak, Odei Guirado Irasuegiren 'Pulunpa (e)ta Xin! Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana' lanarekin batera. Elgoibarko 16-30 urte bitarteko gazteen hizkuntza mudantzak aztertu zituen Ane Iriondok, eta ekainaren 15ean aurkeztu zuen proiektua Euskaltzaindian.

✍️👤 Ainoa Argoitia

AINHOA LEYARISTI

Ikaslea

I ngeles Ikasketetako Gradua egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean Ainhoa Leyaristi Oñederrak (Elgoibar, 2000), Euskal Ikasketetako Minor batekin, eta ondoren, Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentalean Masterra. Eta hain justu ere, master horren amaierako lana da orain saritu diotena, *Hizkuntza nahasmenduaren aztarna bila euskaraz: kasu-marka eta aditz komunztadura* izenekoa. Maria Jose Ezeizabarrena irakaslea eta ELEBILAB ikertaldeko ikertzailea izan du master bukaerako proiektuaren zuzendari Leyaristik.

Hizkuntza garapeneko nahasmendua duten haur euskaldunen kasu-markaren eta aditzaren komunztaduraren erabilera aztertu ditu Leyaristik. Hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko zailtasunei



Hizkuntza batzuetan hizkuntzaren nahasmendua diagnostikatzeko erabiltzen diren parametroak ez dira zertan izan adierazgarri euskaraz

egiten die erreferentzia nahasmendu horrek, eta sintomak "oso zailak" dira zerrendatzen, besteak beste haur bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituelako, eta gainera, hizkuntza batetik bestera alde nabarmenak daudelako. "Adibidez, aditzaren morfologiari lotutako ikerketek erakutsi dute lehen hizkuntza gaztelania duen eta hizkuntza garapen tipikoa duen haur baten eta hizkuntza garapeneko nahasmendua duen beste baten arteko aldea ez dela esanguratsua, baina aldiz, haur ingelesekin egindako probetan, hizkuntza nahasmendua zutenen eta ez zutenen artean bi urteko aldea hauteman daitekeela aditz morfologiaren zenbait ezaugarri ikasteko eta barneratzekeo prozesuan", azaldu du. Kasu-markekin jarri du adibidea: "Ingelesek *he*, *his* edo *him* markak dituzte, adibidez, eta bagenekien hizkuntza nahasmendua duen haur batek *he* erabiltzea tokatzen den kasuetan *him* erabiltzen duela sarri. Akats sistematikoa da, sarri errepikatzen dena. Aditzaren komuntaduran ere haur ingelesak itzelezko arazoak dituzte iraganeko marka erregularra ezartzen, askotan isildu egiten dutelako. Hizkuntzak alderatuta, ikusten dugu haur ingelesak dituzten arazo edo gabeziak beharbada ez direla hain adierazgarriak gaztelania menperatzen duen haur baten diagnostikoa bideratzeko. Gaztelania menperatzen duten eta hizkuntza nahasmendua duten haurrei preposizioek askoz arazo gehiago sortzen dizkiete, nahastu egiten dituztelako". Hizkuntza nahasmenduaren baitan beraz, nazioartean egin diren ikerlanen emaitzak "nahasiak" dira eta euskaraz ez da lan sakonik egin.

Daturik ez gurean

Nazioartean egin diren zenbait ikerketek erakutsi dute haurren %3-7k dutela hizkuntzaren nahasmendua. Euskal Herria bere osoan hartuta, ordea, ez dago hizkuntza garapeneko nahasmendua duten haurren datu bateratu eta ofizialik. "Horrek ez du esan nahi, hala ere, nahasmendu hori duen eta euskara hizkuntza nagusi duen umerik ez dagoenik, baina kontua da, batetik, tresnak falta ditugula diagnostikoa egiteko, eta bestetik, diglosia egoeran zaila dela hautematen hizkuntza garapeneko nahasmenduaren zantzuak dituen haur horrek benetan hizkuntzarekin arazoak dituelako ez duen gramatika zuzen erabiltzen edo den gehiago bizi duen inguruak edo testuinguru soziolinguistikoak ez diolako lagundu hizkuntza zuzen garatzen". Leyaristiren esanetan badaude

faktore batzuk kontrolpean izan beharko genituzkeenak, baina ez ditugunak, eta horiek ikertu nahi izan ditu, diagnostikoa erraztuko duen tresnaren bat garatu ahal izateko eta hizkuntzaren garapeneko nahasmendua duten haur euskaldunei ere ikusgarritasuna emateko. Hau da, haur horiei behar duten baliabide eta arreta eskaini ahal izateko, garaiz. Baina ikertzeko motiboetan bada beste bat ere: "Aztartzea elebitasunak hizkuntzaren bereganatze prozesuan zer eragin duen eta euskaraz prozesatzeko bereziki nekezak diren jardunbide linguistikoak identifikatzea".

Guzti horretarako, lehenengo eta behin, hizkuntzaren bereganatze tipikoaren ezaugarriak berrikusi ditu, ondoren datuak bildu, eta hirugarren fase batean, azterketa praktikoa egin du, etxetik euskaldunak diren eta D ereduan ikasten ari diren 11 urteko hiru haur ikaskiderek. Haurretako batek hizkuntza nahasmenduaren zantzuak ditu eta bi urteko atzerapena erakusten du beste biekiko hizkuntzaren alor jakin batzuetan. Ez du, ordea, adimen atzerapen edota bestelako gaitz kognitiboren baten zantzurik, baina bere ikasketa zentroan diharduten profesionalak hizkuntzarekiko zenbait ezohiko jarrera hauteman dizkiete.

Bi ezaugarri morfosintaktikori erreparatu die Leyaristik bere ikerketan: izen-sintagmaren kasu-markari (absolutiboa, datiboa eta ergatiboa) eta aditzaren egiturari (komuntadura zein menpeko perpausen konplementatzailea). "Nazioartean egin diren ikerketetan landu izan dituzten ezaugarriak dira biak, eta oinarri bat badago, hizkuntzaren nahasmenduak beste hizkuntzetan adierazten dituen ezaugarriak euskaldunengan ere ematen diren ikusteko". Eta ondorioztatu du, besteak beste, beste hizkuntza batzuetan hizkuntzaren nahasmendua diagnostikatzeko erabiltzen diren parametroak ez direla zertan izan nahasmenduaren adierazgarri euskaraz. Adibidez ergatiboaren kasu-markarekin D ereduan ikasi eta hizkuntza garapen tipikoa izan duten haur askok ere arazoak izaten dituzte, haur tipikoek ere arazoak dituztelako harekin.

Emaitzak edo ondorio nagusiak aurki argitaratuko ditu master amaierako lanaren defentsa egin ondorenean, baina ikerketaren egitasmo orokorra irakur daiteke IkerGazte erakundeak Inguma datu-basean argitaratutako laburpenean. Gai honen inguruan, bestalde, hizaldia ere ematekoa du irailaren 16an

EHuren *Hizkuntza-garapen ez-tipikoa haur elebidunengan: diagnosia eta esku-hartzea* udako ikastaroaren baitan, eta interesa duenak badu oraindik izena emateko aukera. Ikastaro horretan, Euskal Herriko eta Kataluniako adituek parte hartuko dute eta hizkuntza arazoak landuko dituzte, ikuspegi ezberdinetatik.

ANE IRIONDO

Ikaslea

Lehen Hezkuntzako gradua ikasi du Ane Iriondo Arizmendik (Elgoibar, 2001) Euskal Herriko Unibertsitatean, eta gradu amaierako lana hizkuntzari lotutako gai baten inguruan egin du. Elgoibarko 16 eta 30 urte bitarteko gazteen hizkuntza mudantzak ikertu ditu Ane Iriondok, eta hain zuzen ere lan hori da iaz Euskaltzaindiak saritu ziona.

Kezka izan zuen gai honetan ikertzen hasteko akuilu Iriondok. Ingurura begiratu eta ikusten zuen bizitzako etapa edota egoera ezberdinetan hizkuntza batean edo bestean komunikatzeko joera zutela gazteek, eta etxetik euskaldunak zirenek eta euskaraz erosoago berba egiten zuten askok ere gaztelania aukeratzen zutela zenbait egoeratan beren adinkideekin komunikatzeko. Pertzepzioa baino gehiago ere bazen, baina. Euskara ulertzen duten hiztunen artean ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko sortutako Euskaraldia ariketa sozialaren emaitzek ere bazioten hori eta interesgarria iruditu zitzaion egoera ezberdinetan ematen diren aldaketa linguistiko horien zergatia aztertzea.

Nola bururatu zitzaizun ikerketarako gaia?

Euskaraldia ariketak zer pentsatu handia eman zidan, eta kuadrillan ere sarri erabili genuen kontu hori: errazegi pasatzen ginela gaztelaniaz hitz egitera, bereziki egoera jakin batzuetan. Konturatuta nengoen neskok gehiago egiten genuela euskaraz gure artean gure adinkide diren mutilek baino, eta konturatuta nengoen, era berean, adin tarte jakin batean, gaztelaniaz erraz irabazten diola euskarari gazteon artean. Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren



“Hezkuntza ibilbideak ere garrantzi handia dauka gazteen hizkuntza aldaketan”

Hezkuntzarako salto horretan, adibidez, gertatzen da aldaketa hori, euskaraz gehiago egitetik gaztelaniaz gehiago egitera pasatzea, eta gero, Batxilergora iristean, badago euskarara bueltatzeko joera bat. Gazteei egindako galdeketa ere hori jaso dut erantzunetan.

Zer lan-metodologia erabili duzu ikerketan?

Galdetegi bat prestatu nuen eta Whatsapez eta Instagramez zabaldu nuen 16 eta 30 urte bitarteko elgoibartarren artean. 70 erantzun jaso nituen, eta erantzun zuten hamar lagunetik zazpi emakumezkoak izan ziren. Gai honekiko kezka handiagoa erakutsi zuten emakumeek, eta bat zetorren Euskaraldikoek argitaratu zuten ondorio nagusi batekin eta kultur kontuetan emakumeen parte-hartzea handiagoa dela dioten datuekin. Banakako hamar elkarrizketa ere egin nituen, eta behaketa bat ere bai kalean, gazteak ibiltzen garen inguruetan, erabileraren inguruko datuak biltzeko. Joan Pujolar irakasleak bost aldaketa unetan bereizten ditu hizkuntzaz aldatzeko egoerak '*Les mudes lingüistiques dels joves catalans (2010)*' lanean: eskola, institutua, unibertsitatea, lan mundua eta arlo pribatua. Nik, baina, 2., 3., eta 4., egoeretan jarri dut fokua, eta gazteen arteko hizkuntza aldaketa horietan, generoak, hezkuntzak eta inguruko pertsonen duten eraginean zentratu naiz.

Eta zer ondorio atera duzu?

Etxeke hizkuntzak eta inguruak bezala, hezkuntza-ibilbideak ere garrantzi handia daukala gazteen muda linguistikoan edo hizkuntza aldaketan. Eskola publikoak etorkinen seme-alaba gehiago hartzen ditu eta galdetegia bete duten gazteei iruditzen zaie eskolan denek euskaraz ikasten duten arren, Elgoibarren, gaztelaniarako joera handiagoa dutela Herri Eskolako umeek Ikastolakoek baino. Gazteek uste dute, era berean, euskara eskolarekin lotzen dutela beren adinkide askok, eta ez aisialdiarekin eta kirolarekin, eta hor eragin behar dela bereziki.

Sare sozialen bidez zabaldu dut galdeketa eta erantzun dutenek esan dute sare sozialek hizkuntza-ohituretan duten eragina ere handia dela. Gazteek kontsumitzen duten gehiena erdaraz dago eta inguru digitalak gazteen hizkuntza-ohituretan duen eragina serio aztertzea da.

"Kale erabileraren inguruko datuak ematen dizkigutenean harritu egiten gara, uste dugulako gehiago egiten dugula euskaraz, gaztelaniara jo arren"

Aipatu duzu Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasatzean euskaratik gaztelaniara pasatzen direla gazte asko, eta Batxilergora iritsitakoan lehengora itzultzen direla. Zer uste duzu dagoela horren atzean?

Galdera hori formulatu nuen galdetegian: 'Gaztelaniaz egitea zer da, guaiago izatea?' Eta baietz erantzun zidaten gehienek. *Guaismo* hori badago beraz. Esaten zidaten institutuan euskaraz eginez gero lagunak alde batera lagatzeko arriskua sentitzen zutela. Hor lan handia dago egiteko oraindik.

Gutxi asko ezagunak zaizkigu emaitzak, baina zer irtenbide proposatzen dizkiguzu?

Interesgarria iruditzen zait Euskaraldia ariketak planteatzen duena egitea. Galdetegiari erantzun dioteneke ere aipatzen dute oso beharrezkoa dela euskaldun kontzientzia hori hartzea; hau da, norberak norberanari eustea, solaskidea gaztelaniaz hasten bada ere, adin tarte honetan euskaraz denok dakigulako. Aisialdian ere lan handia dago egiteko. Datu positibo modura, gazteek uste dute Elgoibarren Atxutxiamaikak lan handia egiten duela euskara gozamenetik sustatzen eta euskal kulturarekiko atxikimendua sustatzen. Egia da, hala ere, gazte asko daudela erdaraz errazago moldatzen direnak euskaraz baino eta euskara bereziki eskolarekin lotzen dutenak, eta horregatik eskolaz kanpoko jarduerak edota praktikak berriazko garrantzia dute gai honetan.

Badago zerbait benetan harritu zaituena?

Euskararen kale erabileraren datuak harridura sortu izana gazteen artean.

Euskaraz gehiago egiten duten ustea dute beraz gazteek?

Bai, eta kale erabileraren inguruko datuak ematen dizkigutenean harritu egiten gara, uste dugulako gehiago egiten dugula, gaztelaniara ere jo arren.

Sallobente-Ermuarango jaiak



Sallobenteko errifako zenbaki irabazlea 82499 izan da. Kandido Aranberrik erosi zuen boletoa, Sargoateko Erromerian.

San Roke jaiak



San Roke jaietan zozkatu zuten orgatilaren irabazlea ez da agertu oraindik; 454 da zenbaki sariduna (Ordezkoa, 1350).

Santumotz eguna



San Antolin jaiak





Maialen Izagirrek jaso du San Antolin jaietan zozkatutako 500 euroko saria. Orgatilaren irabazlea ez da agertu oraindik: 3939 izan da zenbaki saritua (Ordezkoa, 4124).



ALFONSO GUILLO

Musikaria

✍️ Ainhoa Andonegi

Zestoako Leok'k taldeko kidea da Alfonso Guillo, eta irailaren 17an emanaldi berezi bat emango dute Aita Agirre Kultur Gunean. 1968an sortutako taldea da Leok'k, eta iaz kaleratu zuten azken diskoa *Bizirik hala ere* izenburupean. Eta hain zuzen ere, hori islatuko dute irailaren 17ko emanaldian, eta hasierako musika taldeak sortu ziren garaia ekarriko dute gogora, 'Rockaren sorrera gogoan' ikus-entzunezkoaren bidez. Debabarrenean 60-70eko hamarkaden bueltan sortu ziren musika taldeei omenaldia egingo diete, garai hartako musika taldeak gogora ekarriz. Hamalau talde bildu dituzte, tartean Guillo bera kide izandako Espresion Sonora talde elgoibartarra. Ordu erdiko ikus-entzunezkoaren ostean, kontzertua emango du Leo'k taldeak.



“Omenaldi txiki bat egin nahi izan diegu hasierako musika taldeei”

Noiz eta nola iritsi zinen Leo'k taldera?

Leok'k taldea 1968tik ari da musikan, hasierako musika taldeen garaitik. Ni neu ere 1969an hasi nintzen Espresion Sonora taldean, 16 urte nituela, gerora, Koska izango zenean. 2018an, 50 urte bete zituen Leok'k taldeak, eta disko bat grabatzeko deitu zidaten, baxua jotzeko. Taldekide batzuk ezagutzen nituen, eta baietz esan nien, gustura. Diskoa grabatu ostean, diskoa aurkezteko bizpahiru saio egingo zituztela esan zidaten, eta kontzertu horietan joko ote nuen galdetu zidaten. Baietz erantzun nien. Giro oso ona geneukan, eta taldean geratzeko gonbitea egin zidaten. Onartu egin nuen, niretzako ere musikagintzan aktibo egotea oso interesgarria delako eta oso gustura nabilelako taldean. Orditik atera ditugu beste disko batzuk, eta azkena iaz kaleratu genuen, *Bizirik hala ere*.

Emanaldi berezia prestatu duzue irailaren 17rako. Zer eskainiko duzue?

Azken diskoa zabaltzeko bururatu zitzaigun inguruko lehenengo musika talde haiek aintzat hartzea. Omenaldi edo errekonozimendu moduko bat egin nahi izan diegu hasierako taldeei, eta lehenengo saioa Zarautzen egin genuen. Zumaian ere egin dugu beste bat, Orion ondoren, eta orain, Elgoibarren egingo dugu. Hasteko, ikus-entzunezkoa aurkeztuko dugu. Argazkiz eta musikaz osatutako ordu erdiko ikus-entzunezko bat prestatu dugu, eta hori emango dugu lehenengo. Ondoren, taldeak ordubeteko kontzertua emango du, eta amaitzeko, ikus-entzunezkoan agertzen diren talde haietako kideei edo euren senideei oroigarri bat banatuko diegu. Batzuentzat ekitaldia oso hunkigarria suertatzen da. Niri ere barruraino iristen zait, imajinatzen dituzulako talde horien atzean egon diren bizipen guztiak, eta hori oso



Leok'k taldekoak eta tartean Alfonso Guillo bera, ezkerretik bosgarrena.

hunkigarria delako. Hamalau talde bildu ditugu guztira, eta saiatu naiz talde guztietako kideekin edo haien senideekin harremanetan jartzen, baina ez dakit horietatik zenbat agertuko diren ekitaldira. Ekimenak badu bere eragin emozionala egia esan, baina horrez gain, herriko kulturari ekarpen polita egiten diogula iruditzen zait. Garai hartako musika mugimenduaren berri izateko modu bat prestatu dugu, eta uste dut jendeari interesa dakiokela.

Hamalau talde bildu dituzue. Zein izan da irizpidea?

1972. urtean jarri dugu muga, beraz, urte hori baino lehenagokoak diren taldeak bildu ditugu ikus-entzunezkoan. 72an beste mugimendu bat hasten da: euskaraz abesten hasi ziren taldeen olatua. Espresion Sonora gure taldea ere Koska izatera pasatu zen, eta euskaraz abesten hasi ginen. Talde berriak sortu ziren, instrumentuak ere kalitate handiagokoak ziren... Aldaketa kualitatiboa egon zen, eta guretzako belaunaldi berri bat hasi zen. Guk hasiera-hasierakoak gogoratu nahi izan ditugu. Zaharrenak 1962an sortu ziren Eibarren. Hamalau bildu ditugu guztira: Espresion sonora Elgoibarkoa, Los Mansos Soroluzekoa, eta gainerakoak Eibarkoak. Ez da erraza izan talde horien informazioa topatzea, baina iturri oso onak aurkitu ditut Eibarren. Los Walters, Los Doblones eta Los sonidos del silencio taldeetako

"1972an jarri dugu muga, beraz, urte hori baino lehenagokoak diren taldeak bildu ditugu ikus-entzunezkoan"

kideen bidez iritsi nintzen Eibarren hainbat taberna eduki dituen gizonezko batengana, eta haren bitartez Durangon bizi den beste eibartar batekin jarri nintzen harremanetan. Azken hau ikerlaria da eta informazio pila bat eman zidan, taldekideen kontaktu guztiekin. Nik denei deitu diet, eta batzuk pozik hartu dute gonbidapena, baina beste batzuk ez didate ziurtatu etorriko direnik. Talde haietako taldekide asko dagoeneko ez dira bizi, eta senideentzat ulertzen dut emozio gehiegi izan daitekeela, baina era berean, polita.

Nolako harrera izan dute orain arteko emanaldiek?

Zarauzko emanaldiak oso harrera ona izan zuen. Jende asko etorri zen eta kultur eragileak ere harrিতuta geratu ziren. Zumaian eta Orion jende gutxiago izan genuen, eta Elgoibarren ez dakit zer gertatuko den. Igande eguerdian

da kontzertua, ez dakit ordurik onena den ere, baina ezin da jakin. Dena dela, animatu nahi nituzke herritarrak ekitaldira etortzera, ikusiko dutelako garai hartako gazteak nola hasi ziren musikan, zein itxura zuten, garai hartako abestiak entzungo dituzte... Ez dauka gaur egungoarekin zerikusirik, eta jakinmin apur bat duenari, gustatuko zaio. Ekitaldi modernoa eta atsegina prestatu dugu, eta emozionantea izango da.

Nolako musika egiten zuten garai hartako taldeek?

Bertsioak egiten genituen; ez zegoen konpositorerik talde haietan. Ni 16 urterekin hasi nintzen, eta abenduaren 5 batean eman nuen lehenengo kontzertua Arroa Beheko La Cabaña aretoan, gerora Jazz Berri izan zen hartan. Musikarako motibazioa irratia entzutek piztu zitzaidan niri. Eskolan nengoen eta etxeko lanak transistore txiki batekin egiten nituen. Onda Media, Radio peninsular de Madrid eta Radio Intercontinental entzuten nituen. Rock eta rythm&blues estiloko musika jartzen zuten eta niri izugarri gustatzen zitzaidan. Gero abestiei buruzko informazioa bilatzen nuen. Ez da gaur bezala, toki guztietatik iristen zaigula informazioa; orduan topatu egin behar zen. Diskoak Artegi etxetresnak dendan saltzen zituzten Elgoibarren, eta Eibarko Etxezarragan. Diskoak erosi, eta abestiak entzunez koptatu egiten genituen. Minutuko 33 erreboluziotan jotzen zuen diskoak, eta 45ean jartzen genuen, baxua hobeto entzuteko. Instrumentuak Getarian erosi genituen, epeka ordainduz. Talde pila batek

*"Ekitaldi modernoa eta atsegina
prestatu dugu,
eta emozionantea izango da."*

erosi genituen denda berean instrumentuak eta kontzertuetan lortzen genuen diruarekin ordaintzen genituen. Nire lehenengo baxua italiarra izan zen. Oroitzapen politak ditut.

Leok'k taldeak zein estilotako musika egiten du gaur egun?

Ez da erraza musika estiloa zehaztea gaur egun. Hori askotan kazetari musikalek egiten dute, eta marketin kontua ere izaten da. Baina bueno, rocka egiten dugula esango nuke instrumentazioagatik. Rock progresiboaren eragina daukagu, baina ez da iristen sinfonikoa izatera, beraz, rocka dela esango dugu. Euskaraz abesten dugu, baina bertsio batzuk ere egiten ditugu. Zuzenekoan Led Zeppelin taldearen abesti instrumental bat jotzen dugu, eta horrez gain Tina Turnerrentzat egindako *River deep, mountain high* abestia ere jotzen dugu. Hori nik abesten dut gainera. 18 urterekin ere kantatzen nuen, baina duela gutxi euskaratu egin dut eta orain, euskaraz abesten dut. Ni bestela baxujolea naiz, eta koruak egiten ditut.



San Bartolome jaien balorazio positiboa egin du Elgoibarko Udalak

San Bartolome jaien balorazio positiboa egin du Elgoibarko Udalak. Aurten 50 urte bete dituen Haritz Euskal Dantzari taldeak bota zuen hilaren 23an jaiari hasiera eman zien txupinazoa, eta ordutik ospakizun-ekitaldiz beteriko jaiak izan dira, hilaren 28ra arte. 70 ekitaldi baino gehiago antolatu zituzten, besteak beste, Txiki Egunekeo kalejira, ETS, Tapia eta Leturia, Neomak eta Su Ta Gar taldeen kontzertuak. Aipamen berezia egin dio Udalak herritarren parte-hartzeari esker sendotzen ari den Larrain dantzari eta nabarmendu ditu baita ere Elgoibarko Musikarien Elkarteko talde gonbidatuak emanaldiak: Ellie Jensen, Brillet eta Muzak. Pilota profesionaleko partidak eta sagardo, gazta eta limusin lehiaketak ere oihartzun handia izan duten jarduerak izan direla aipatu dute Udaletik.

Sokamuturra ere aipatu dute arduradunek jaien balantzean, eta Arno ganadutegiko Agustin Mugertzaren lana nabarmendu dute. 39 urteren ondoren Txiki Egunean izan zen Arno ganadutegiaren azken sokamuturra, eta Mugertzari omenaldia egin zion Udalak.



Ondorengo bi sokamuturrak Debako Leizaran eta Elgoibarko Ruso ganadutegiaren ardurapean egin ziren, eta Udaletik esan dutenez "oso nota ona" lortu zuten. Eguraldi euritsua izan zen arren, azken bi egunetako sokamuturrek izandako parte-hartzea azpimarratu dute.

Eguraldiari ere egin diote aipamena, eta esan dute beroagatik eta euriteengatik ezarritako alerta meteorologikoez ez zutelako jendearen jai izpirituan eragin. Gaineratu dute ez dela jazo gorabehera nabarmenik, eta errespetuan, bizikidetzan eta harmonian joan direla jaiak. Tolerantziarako ingurune bat sendotzea eta indarkeria matxista gaitzestea, Udalaren eta Lila Emakumeen Etxearen artean partekatutako helburu bat, arrakastaz lortu dela esan dute.

Udalak eskerrak eman dizkie festetan aktiboki parte hartu duten herritar guztiei, bai eta elkarteei, tokiko eragileei eta baita jai hauek posible egiteko lan egin duten langile guztiei ere.

'Barren' kide den Tokikom elkarteak jasoko du FestVal 2023ko EITB saria



Barren astekaria ere parte den Euskal Herriko tokiko hedabideen sareak jasoko du aurtengo FestVal EITB saria. "Hamarkada batean, TOKIKOMek agerian utzi du zein garrantzitsuak diren tokiko komunikabideak gizartean, bertako informazioa galdu ez dadin. Gainera, elkarlan eredu berriak ezarri ditu, tartean EITBrekin, sektorearen hedapena sustatzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko", zabaldu du FestValek ohar bidez. Tokikometik adierazi dute

mundu mailan tokikoak hartzen ari diren lekua aitortzen dutela EITBtik ere eta sektorekoek aitortzea "pozgarria" dela oso". Alaitz Artolazabal zuzendariak pozez hartu du saria: "Euskara hutsezko hedabideak aitortzea ez da egunero gertatzen. Komunitate sendoa osatzen dugu, baina are handiagoa izango bada, elkarlan efektiboak beharko ditugu ezinbestean. Txikitik egiten dugun ahalegin hau EITB moduko enpresa handi batek ikusi izana positiboa da".

Haritz Euskal Dantzari Taldearen 50. urteurreneko argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Haritz Euskal Dantzari Taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta urteurrenaren harira hainbat ekintza burutzen ari dira urte osoan zehar. Egitarauaren barruan argazki erakusketa inauguratuko dute gaur, 18:30ean, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Inaugurazio ekitaldian erraldoiek ere hartuko dute parte, eta urteurreneko materiala jarriko dute salgai Kultur Etxe kanpoan.

Erakusketa honekin taldearen 50 urteko ibilbidearen errepaso egingo dute argazki eta bideoen bidez, eta emanaldietan erabili izan dituzten jantziak eta materialak ere jarriko dituzte



ikusgai. Hilaren 17ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatura, 18:30etik 20:30ak arte.

Anjel Bazterretxearen omenez egindako 'Herrigintzan hauspo eta akuilu' ikus-entzunezkoa ikusgai jarri du Mendaroko Udalak

Ekainaren 7an aurkeztu zuten Mendaron *Anjel Bazterretxea, herrigintzan hauspo eta akuilu* ikus-entzunezkoa, 54 urtez Mendaroko abade izan zenaren omenez sortutakoa, eta orain, sarean ere badago ikusgai helbide honetan: <https://www.facebook.com/100069418213263/videos/235480738940907/>. 1962ko urrian iritsi zen Mendarora Anjel Bazterretxea, 26 urterekin (Mutriku, 1936 - Mendaro, 2019). Saturrarango abade-etxea laga eta Garagartzako mojen komentuan kapilau hasi zen orduan. Elizako

ardurez gain, baina, beste ardura asko ere hartu zituen Mendaron, eta bereziki herrigintzan eta kulturagintzan egindako lanagatik zuten mendarotarrek estimutan. Eta haren omenez, eta Mendaro herriaren alde egin zuen lana aitortzeko, bi hankako proiektua sortu zuen Elgoibarko Izarrak, Mendaroko Udalaren babesarekin: batetik, argazki erakusketa osatu zuten haren artxiboko zenbait argazkirekin, eta bestetik, eta artxibo-grafiko hori oinarri hartuta, Bazterretxeari buruzko ikus-entzunezkoa sortu zuten.

2024ko egutegirako argazki eta marrazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 6an amaituko da

Udaleko Euskara Sailak 2024ko egutegia osatzeko argazki eta marrazki lehiaketa antolatu ditu. Argazki lehiaketan Elgoibarren bizi, ikasi edo lan egiten dutenek hartu dezakete parte, eta marrazki lehiaketa, berriz, LH5eko Herri Eskolako eta Ikastolako ikasleei zuzenduta dago. Parte hartzaileek Elgoibarko bizitza komunitarioaren alderdi anitzak beren lanetan islatzeko aukera izango dute, tokiko jarduerak eta ospakizunak izango baititu gaitzat aurtengo lehiaketak.



Marrazkiak norberak bere ikastetxean entregatu beharko ditu, eta argazkiak Euskara Sailean. Parte hartzeko azken eguna urriaren 6a izango da. Epaimahaiak 13 argazki sarituko ditu (12 egutegi handirako eta bat txikirako), eta 12 marrazki (Ikastolako sei eta Herri Eskolako sei). Informazio gehiagorako: 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus.

Gotzon Garate udal liburutegiko erabiltzaileek "oso ontzat" jo dute zerbitzua

Gotzon Garate udal liburutegiak erabiltzaileen asebetetze inkesta bat egin zuen ekainean, eta 316 lagunen erantzunak jaso ditu. Erantzun horien arabera, erabiltzaileek "oso ontzat" jo dute udal liburutegiak eskaintzen duen zerbitzua, izan ere, %28,3k 10eko puntuazioa eman diote liburutegiari, eta %22,2k 9koa. Parte-hartzaileen %64,9k 31 eta 65 urte bitartean dituzte, % 15,2k 19 eta 30 urte bitartean, eta % 13,6k 66 urte baino gehiago. Era berean, inkestatuen %69,9 emakumeak izan dira eta %29,1 gizonak.

Erabilerari dagokionez, liburuak maileguan uztea eta liburutegia ikasteko erabiltzea dira erabilerarik ohikoenak, eta, ondoren, DVDak maileguan hartzea eta hainbat material irakurtzea. Egungo ordutegia mantentzeko adostasun orokorra dago, baina iradokizunak egin dituzte uztailean eta abuztuan ordutegia zabaltzeko, eta baita larunbatetan ere. Liburutegiko langileen arreta positibotzat jo dute erabiltzaileek, eta ikasgelan giro lasaia eta errespetuzkoa izatearen



garrantzia nabarmendu dute. Erabiltzaile batzuek liburutegian leku gehiago behar dela aipatu dute, batez ere, haurren atalean. Azkenik, ikasteko gela handiagoak eta intsonorizatuagoak behar direla ere aipatu dute.

Udalak eskerrak eman dizkie modu aktiboan parte hartu duten herritarrei, eta parte-hartzaileen artean 80 euroko erosketa bonua zozkatu dute, Txankakuako establezimenduetan gastatzeko: Karmelo Oiartzabal izan da irabazlea.

Altzolako soka-dantza irudikatzen duen argazki honi buruzko informazio bila ari dira Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideak

Haritz Dantza Taldeko kideak beheko argazki honi buruzko informazio bila dabiltza, Mikel Sarriegik egin behar duen argitalpen baterako. Altzolako San Joan jaietan ateratako argazkia da. Garai batean ekintza asko egiten ziren Altzolako jaietan, eta jende asko batzen zen, argazki honetan ikus daitekeen moduan. Herritarren batek argazki honi buruzko informaziorik badu, egilea, urtea, dantzariak zeintzuk izan daitezkeen, eta abar,



Haritz Dantza Taldekoekin jar dadila harremanetan: haritzdantza@gmail.com / 686 633 178

BOSGARREN EGIN DU UTMBn

Hauspoa eta sasoia; biak ditu Maite Maiorak (Mendaro, 1980). Burua hotz eta hankak arin abiatu zen bariku arratsaldean Chamonixetik Mont Blancoko ultratraila, mendi lasterketen artean handiena, jokatzera, eta bosgarren emakumezkoa izan zen helmugaratzen zapatuan, egunak dituen baino ordu gehiago korrika aritu ostean (25:02:26). Lasterketa Courtney Dauwalter estatubatuarrak irabazi zuen emakumezkoetan eta Jim Walmsley estatubatuarrak, gizonezkoetan.



✍️ Ainara Argoitia / 📷 FotoIosu

Bere kategorian lehenengo egin zuen Maiorak. Hemen, sariarekin.

Mendi lasterketen artean bat nabarmentzen bada, hori Chamonixen (Frantzia) jokatzeko den Mont Blancoko ultratraila da (UTMB). 172 kilometro luze da eta 9.963 metroko desnibel positiboa du, eta gogorrean zaildutako korrikalariak batu ohi dira irteeran, dortsala lortzea bera ere ez baitago denen eskura. UTMBko lasterketa nagusia jokatu ahal izateko merituak egin behar dira. Aurten, 2.300 korrikalarik hartu dute parte Mont Blancoko ultratrailan, tartean Maite Maiora mendarorak zeina bosgarren sailkatu den emakumezkoetan. Lehenengoa izan da bere kategorian (40-44 urte bitarteko emakumeak), eta 41.a sailkapen nagusian. Denbora ikusgarria egin du, gainera. Duela lau urte podiuma egin zuenean baino 40 minutu hobea: 25:02:26.

Hirugarrenez parte hartu du aurten UTMBko lasterketa nagusian mendarorak. Urte guztia eman du Chamonixera begira eta mimo handiz prestatu du lasterketa, bazuelako arantza bat 2021eko UTMBaz geroztik. 2019koan hirugarren egin zuen lasterketa honetan eta itzuli zen berriro 2021ean Chamonixera, baina urdaileko minek estu hartu zuten orduan, eta erretiratzeko eskatu zion buruak. 88. kilometroan laga behar izan zuen lasterketa, urdailean sentitzen zituen

ziztadek ikaratuta. 2019an egindako denborak errefentziatzat hartuz gero, hobeto zihoan, baina kilometro asko falta zituen amaitzeko eta laga zuen. Eta utzi izanaren damu hori bazuen geroztik. Ordutik sarri aipatu izan du bere kirol ibilbidean egin duen hutsik handiena izan zela lasterketa uztea. Arantza hori ateratzeko asmoz itzuli da aurten UTMBra, eta kendu du.

Prestaketak eman du emaitza

UTMB zirkuitoko ehun miliako lasterketa batean lehen hiru postuetan sailkatzen direnek zuzenean eskuratzen dute UTMBko lasterketa nagusirako txartela, eta maiatzean eskuratu zuen txartel hori Maite Maiorak, Alsace Grant Est traila irabazita. Izugarritzko poza izan zela aitortu zuen orduan, bazuelako, esan bezala, barruan min bat, 2021eko UTMBaz geroztik. Eta abiatu zen bariku arratsaldean Chamonixetik Mendi Zuriari itzulia ematera.

Normala duena baino astiroago hasi zuen lasterketa, indarrak gordez moduan, eta atzetik aurrerako lasterketa osatu zuen, oso berea duen eran. Chamonixera lasterketa ikustera joandako lagunek indartsu ikusi zuten ibilbidean zehar eta hala sentitu zuen bere burua Maiorak ere.

Aitortu du "saillkapenean gehiegi pentsatu gabe" egin zituela kilometro mordoska bat, baina ondo zihoala ikusita, Champex-Lac-en, helmugarako 50 bat kilometro falta zirela, zenbagarren zihoan galdetu ziela anoa postuan zain zituen lagunei. Hamargarreterik atzera zihoala uste zuen berak, baina zazpigarren zihoala erantzun zioten lagunek eta poztu eta indartu zen. Vallorcinen, helmugarako hogeitazpiki kilometro falta zirela, jarri zen bosgarren, eta eutsi zion postuari helmugara iritsi arte. Lasterketa amaieran "pozik, oso pozik" zegoela aitortu zion BARRENI, urte zaila izan duelako aurtengoa eta azken unera arte ez zuelako garbi izan parte hartzerik izango ote zuen ere, lesio asko izan dituelako eta ez zekielako orkatilak erantzungo ote zion. Baina bukatu zuen, bosgarren, eta ziurtatua du datorren urterako dortsala. Hori bai, 2024an Running stone bat bukatu beharko du, UTMB world Series lasterketa batean parte hartuta. Bukatzea aski izango du.

Courtney Dauwalter eta Zach Miller garaile

Lasterketa Courtney Dauwalter estatubatuarra irabazi zuen emakumezkoetan. Faborito argia zen Dauwalter eta ez zuen hutsik egin. Ultra distantzietan, gaur gaurkoz, nagusi dela berretsi zuen Dauwalterrek [Birritan irabazia du UTMBko lasterketa nagusia: 2019an eta 2021ean]. Katharina Hartmuth alemaniarra saillkatu zen bigarren (24:10:42) eta Blandine L. Hirondele frantziarrak egin zuen hirugarren (22:22:50). Gizonezkoetan, berriz, Jim Walmsley estatubatuarra irabazi zuen lasterketa, 19 ordu, 37 minutu eta 43 segundoko denbora eginda. Zach Miller estatubatuarra eta Germain Grangier frantziarra saillkatu ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

UTMB lasterketa nagusia izan zen azkena jokatzeko, baina aurreko egunetan beste zazpi lasterketa ere jokatu ziren Mont Blancoko ultratrailaren inguruko probetan, eta euskal herritar gehiagok ere parte hartu zuten. MCC lehiaketan lehiatu zen, esaterako, Ainhoa Lendinez elgoibartarra. Martignyn hasi eta Chamonixen bukatzen da MCC lasterketa eta 38 kilometro luze da, 2.300 metroko desnibel positiboduna. 41. amaitu zuen Lendinezek eta bosgarrena izan zen bere kategorian. barren.eus atariko komunitatean eskegi du kronika.



Lunigianako Giroan parte hartu du Eneko Ortegak, Espainiako selekzioarekin



Lunigianako Giroan Espainiako junior kategoriako selekzioarekin lehiatzeko hautatu zuten Elgoibarko Lagun Taldeko Eneko Ortega txirrindulari elgoibartarra. Ortegaz gain, Adria Pericas, Alvaro Garcia, Pablo Lospitao, Gari Ugarte eta Pablo Torres deitu zituen deialdira Manuel Mateo Espainiako hautatzaileak. Juniorren Italiako egutegian ospe handiko lasterketa da Lunigianako Giroa eta horren adierazgarri da profesionalen tropeleko izarrek irabazi dituztela azkeneko edizioak: Remco Evenepoel, Andrea Piccolo, Lenny Martinez eta Antonio Morgado, besteak beste. Abuztuaren 31tik irailaren 3ra bitartean bost etapa

jokatu zituzten, eta Espainiako selekzioak seigarren postua lortu zuen taldeka eta sailkapen nagusiko 46. postuan sailkatu zen Eneko Ortega, Leo Bisiaux irabazlearengandik 14:29ra. Pablo Lospitao izan zen Espainiako taldean posturik onena lortu zuena, 18. postuan sailkatuta. Gainera, azken etapa irabazi zuen Lospitao, azken 23 urteetan txirrindulari espainiar batek lortzen zuen lehen garaipena. Gizezkoen Espainiako Junior Selektzioak Europako Txapelketa irabaztea du denboraldiko bigarren helburu nagusia. Irailaren 20tik 24ra jokatu dute Europako txapelketa, Drenthen (Herbehereak) eta harako prestatzeko lehiatu dira Italian.

Izkira mendi bizikleta irteera antolatu du Morkaikok

Izkiko natur parkera eta Santikurutze Kanpezu inguruetara BTT irteera antolatu du Morkaikok, irailaren 22tik 24rako. Kanpezu aterpetxean hartuko dute ostatu; bi gau. Antolatzaileek ohartarazi dute egingo dituzten ibilbideak "zailtasun maila fisiko altukoak" direla, eta zenbait tartetan zailtasun tekniko handikoak ere bai. Irailaren 23rako 58 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea prestatu dute. Izki natur parkearen bihotzetik pasatuko dira eta natur parkearen eremuetan dagoen herri bakarra, Korres, ere bisitatu dute, Apellanizgo eskalada gunea, eta Antoñanako Vasco-Navarro greenway interpretazio zentroaz gainera. Irailaren 24ko ibilbidea (53 km eta 1.650 desnibel positiboa) Santi Kurutze inguruko



basoetan zehar egingo dute. Hiru jaitsiera "gozagarri" izango direla nabarmendu dute Morkaikoko BTT sailekoek. Xehetasun gehiago eta izena emateko: morkaiko.eus.

Euskal Herriko eskubaloi jokalariai gaztetxoek topaleku izango da Elgoibar asteburuan

Gipuzkoa, Bizkai eta Nafarroako hamar taldek hartuko dute parte Gojko Vucinic Elgoibar Hiribildua txapelketaren bosgarren ekitaldian, gaurtik domekara bitartean. Taldeek harrobiko jokalariekin egiten duten lana bistaratzeko da Sanlok antolatzen duen txapelketaren helburu nagusia eta asmo horretan kadete mailako 300dik gora jokalaria gaztetxo batuko dira Elgoibarren. Nesken taldeek Olaizagako kantuan jokatuko dituzte partidak eta mutilenek IMH kiroldegikoan. Honako hauek dira parte hartuko dute taldeak: Eibar Eskubaloia (Eibar), Sanlo (Elgoibar), Pulpo (Zumaia), Ereintza (Errenteria), Malkaitz (Burlata), Urola (Zumarraga), Anaitasuna (Iruña), Errotaberri (Ermua), Tolosa (Tolosa), C.D. Urdaneta (Loiu). Lehen egunean, gaur, 18:30etik eta 20:00etara jokatuko dituzte neurketak. Zapatuan 09:00etan, 11:00etan eta 12:30ean jokatuko dituzte partidak goizez,



eta, arratsaldez, 16:00etan, 17:30ean eta 19:00etan. Domekan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidak jokatuko dituzte, 09:00etan eta 10:15ean, eta finalak, 11:30ean eta 12:45ean izango dira, Olaizaga kiroldegiko kantuan. Bosgarrengotik zortzigarregorako sailkapena erabakitzeko neurketak IMHn jokatuko dituzte, finalen ordutegi berean. Sari banaketa ekitaldia Olaizagan izango da.

Aran Raida irabazi du Imanol Garaizabalek Euskalraid taldearekin

Hiru urteko etenaldiaren ostean, irailaren 1etik 3ra bitartean jokatu zuten Raidaran Adventure Race proba, Aran bailaran (Herrialde Katalanak). Utzitako bidetik itzuli da proba, eta antolatzaileek Pirinioetako tokirik ezezagunenak, basatienak eta ikusgarrienak aukeratzeko ahalegina egin dute raida osatzen zuten kirol modalitate ezberdinak egiteko, besteak beste, rafting, mendiko bizikleta, canyoning, via ferrata eta orientazio probak. Parte hartzaileek 48 orduetan zehar, non-stop formatuan, hau da, geldialdirik egin gabe, gainditu behar zituzten proba guztiak. Eta Euskalraid taldea izan zen guztietan azkarrena Elite kategorian. Lau lagunek osatu zuten taldea: Nahia Quincoces (Mendexa), Beñat Doyhartzabal (Ibarra), Aitor Otamendi (Oñati) eta Imanol Garaizabal (Elgoibar). 38 orduetan bukatu zuten proba, 200 kilometro eta 10.000 metroko goranzko malda metatua zuena.

Zortzi probaz osatuta dagoen Adventure Races European Series txapelketarako proba



puntuagarria izan zen Aranekoa, eta hortaz, Europako raid kirolari onentsuenek hartu zuten parte. Lortutako garaipenari esker, Euskalraid taldeak Europako Txapelketa jokatzeko sailkatzea lortu du. Hiru aste barru jokatuko dute, irailaren 30ean, Frantziako Alpeetan.

LANA

Eskaerak

Gaztea eskaintzen da goizetan edo eguerdietan umeak zaintzeko.

634 404 152

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat.

685 724 861

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa daukat.

631 425 686

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

632 915 336

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

641 359 007

PARTIKULARRAK

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati fisika eta kimikako klase partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.

644 455 164

DBH3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona baten bila nabil. Batez ere matematika, fisika eta kimika.

677 528 828

KINTOAK

1963an jaiotakoen kinto ospakizuna, irailaren 23an. 12:30ean Kalegoen plazan elkartuko dira eta bazkaria Sigma jatetxean egingo dute. Interesatuak 70 euro sartu behar dituzte ES68 3035 0007 2500 7114 3725 kontu korrante zenbakian, izen-abizenak zehaztuz, irailaren 20rako.



CNC tornurako eta artezteko makinetarako langileak behar ditugu.

Interesatuak jarri gurekin kontaktuan;

943 740 844 telefonora deituz edo zubacor@zubacor.com-era idatziz.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Pasa Administrazioaren
Lanaldia Euzkoakoa



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko lehendakariak kargua utziko du laster. Lehendakariak konponketa asko egin ditu, gainerako etxebabeak jakinarazi ez zaizkienak. Jakin nahi nuke komunitate bateko lehendakariak zer eginkizun dituen eta zer arau motak eragiten dion bere karguan aritzean.

Lehendakari-kargua betetzen duen pertsonari eragiten diote PHLK ezartzen dituen arauak, Jabekideen Batzarrean baliozkotasunez hartutako akordioek, eta horien mende jarri behar du bere jarduna, eta betearazi egin behar ditu, eta, azkenik, Kode Zibilak analogiaz agintariari ezartzen dizkion arauak ere eragiten diote. Komunitateko lehendakaria Jabeen Batzordearen erabakiak betearazteaz arduratzen da, hau da, ordezkatzen duen komunitatearena, bai barrukoari bai kanpokoari dagokionez. Beraz, Jabekideen Batzarra bere kudeaketan eta eginkizunetan sar daiteke. Edozein kasutan, komunitate bateko lehendakaria agintarien jarraibideetara egokitu behar da, eta batzarak berak ere mugatzen du lehendakariari emandako ahalmena. Hau da, Jabekideen Batzarra bera da lehendakariak egin ditzakeen jarduketan, erabakien eta eginkizunen norainokoa zehaztuko duena. Izan ere, haren jarduna ordezkaritza hutsa da, komunitateko akordioak betetzeko. Halako jarraibiderik ezean, lehendakariak behar bezalako arduraz eta zentzuz jokatu behar du.

Gomendioa. Lehendakariak Jabekideen Batzarrearen berariazko baimenik gabe emandako egintza edo kontratuen kasuan, komunitateak ez du horien betebeharririk izango, salbu eta Batzarrak presidentek egindako kontratuak berresten dituenean.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




Irailaren 13an 7 urte beteko dozuz!, Zorionak, **Sara!** Patxo potolo eta haundi bat bialtzen dizugu etxeko guztiok, bereziki, Martinek eta Alexek! Ondo pasatu eguna!



Zorionak, **Ekhi!** 6 urte! Izugarri maite zaitugu! Patxo potolo bat etxeko eta batez ere, Kiraren partetik. Segi orain arte bezain alai.



Zorionak, **Nikole!** 5 urte potolo! Egun polita izan! Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Haizea,** abuztuaren 20an 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.




Zorionak, **Nerea** eta **Mikel,** abuztuaren 9 eta 12 urte egin dituzuelako. Familiako guztien, eta bereziki, lehengusu Igor eta Idoiaen partez. Muxu handi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EXPRESS ESKAINTZAK!

LED HISENSE 43E7HQ TELEBISTA



349 €

- Smart TV
- 4K UHD
- Google eta Alexa laguntzailea
- HbbTV 2.0.3.
- Dolby Audioa
- 3 HDMI
- 2 USB
- QLED teknologia



Ingeleseko irakasle britaniarra, natiboa

- Erraztasun, zehaztasun eta konfiantza handiagoz hitz egiten ikasiko duzu.
- Klase partikularrak edo 3 pertsona arteko taldeak.
- Aurrez aurre etxean edo online.

681 639 284 (Lucy)



Jon Aranao
Guillermo Torres

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Aukerarik ezin diren orduak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo degi zerbitzua daukagu.
Datu ardua hartzeko.



PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

8 BARIKUA

18:30 Erakusketa: Haritz EDTren 50. urteurrena. Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 17ra arte.

3 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Karakateko aparkalekutik abiatuko dira. Bisita euskaraz izango da. Izena emateko: 657 794 677

15 BARIKUA

19:00 Hitzaldia: 'Emakumea historiaurrean'. Hizlaria: Naroa Garcia Ibaibarriaga, EHUKo irakasle eta ikertzailea. Mendaroko udaletxeko Udalbatza aretoan.

19:00 Hitzaldia: "Landare exotiko inbaditzaileak". Elgoibarko Baso Biziak taldeak antolatuta, Musika Eskolako auditoriumean.

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

IRAILA

8 BARIKUA
9 ZAPATUA
10 DOMEKA
11 ASTELEHENA
12 MARTITZENA
13 EGUAZTENA
14 EGUENA
15 BARIKUA

Egunez

■ Oruesagasti
Barrenetxea
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia
Arriola
■ Fernandez
Yudego

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Karmel Iriondo Gonzalez

2023ko abuztuaren 12an hil zen, 63 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**


Herri-gain elkarte



Juan Astigarraga Totorica

2023ko irailaren 4an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Karmel Iriondo Gonzalez

2023ko abuztuaren 12an hil zen, 63 urte zituela.

*Bihotza triste daukagu
abuztuko aste honetan
lagun handia joan zaigu
zoritxarrez ezustean
bizitzako une goxoan
jubilazio atetan
familia bideratuta
negoioa loretan.*

*Jota apurtutako motorra
parranda eta jaietan
kriston ideiak zenduzen
jartzeko danak txantxetan
pelota barik partidua...
ideia onak benetan
zure hutsunea beti
hurrengo ospakizunetan.*

Jota apurtuko lagunak



Ion Garate Guenaga

"Katalo"

2023ko abuztuaren 18an hil zen, 43 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*

Zure familia



Ion Garate Guenaga

"Katalo"

*Hauan lekuan hauala
aittuko juagu hire oihartzuna,
haundixen artian haundixena.*

Hire kuadrilla



Eskarmentuaren paperak ziren Anjel Lertxundirenak (Alberdania, 2009) eta izen hori eman diogu Angel Ugartebururi esker hasiko dugun tarte honi ere. Lertxundik testu laburrak, hausnarketak, haurtzaroko oroitzapenak... bildu zituen Alberdaniak argitaratutako liburu hartan. 'Eskarmentuaren paperak' ez zen oroitzapen liburu bat, baina asko zor zion oroimenari, bai eta urteek emandako eskarmentuari ere, eta atal honetan irakurriko dituzun testuek ere bietatik izango dute. Belaunaldi arteko harremana, transmisioa eta beste hainbat konturi buruz jardungo gara atal honetan, librean. Zabaldur, Ugartebururen testuekin zabaldurko dugu 'Eskarmentuaren paperak', baina zuk ere zer kontatua baduzula irudituz gero eta kolaboratzeko prest bazaude, jarri gurekin harremanetan.

Magíster/Magistra

Anjel Ugarteburu



Eretreta aspaldi hartu zuenak ere gogoan ditu iraileko hasierako egunak, nagikeriak nagikeri, ilusioz betetako proiektuz blai zeudenak. Maisu, andereño, irakasle ginenok arretaz begiratzen genituen ikasle berri izango genituen haien zerrendak. Gure lehenengo ikasturteetan, batez ere. Deitura eta izen bakoitzaren atzean pertsona bat, nor berezi bat, besteengandik ezberdina, bakoitza bere guraso, familia, jatorri eta izaera zuena. Zer esan gaur eguneko aniztasunaz! Aberasgarri bezain kudeatzen eta bideratzen zaila.

Hitzek berez gorde ohi dute jatorrizko zentzua edo muina eta horietako bat maisu edo maistraren izena da: *magister* latinez. Gaur egun ere ez dute zeharo zentzu berdina maisu eta irakasle hitzek. *Magis* (más) eta *minus* (menos). Magistik dator magister eta minustik minister.

Magister hori bera da ikasle bakoitzarekin harreman zuzenean hura hezi eta bideratzeko ardura duena; berak ezagutu behar du aurrean duen pertsona hori, bere xehetasun bereizgarriak barne, irakatsi beharrekoak lur onean erne daitezen. Hezkuntza proiektu eta programazioak ezin dira ezarri modu berean gela guztietan, eta gutxiago ikasle bakoitzaren ikasbide prozesuan. Horregatik da maisua edo maistra *magister*; irakasle soil baina gehiago, alegia.

Lurrera jausten den euririk ere ez du beti eragin eta probetxu bera izaten.

Euria hartzeko prest dagoen lurrian errazago erneko dira ernemuinak eta fruituak. Maisuari eta maistrari dagokie euria datorrenerako lurra prestatu eta hazia ereitea. Ondo dakigu kolpera datorren euri jasak mesede baino kalte gehiago egin dezakeela lurra higatu eta basamortu bihurtuz. Hortxe dago maisu eta maistraren lana: zer irakatsi bezain garrantzitsua baita non, nori, noiz eta nola (goxotasuna barne) irakatsi.

Programazioak eskatzen duena, besterik gabe, guztiei modu berean eurijasaren antzera burutik behera botatzeak *minister* bihurtuko gintuzke. Badakigu, *minister*=*minus*=gutxiago. Inoren esanetara, goitik behera, prestatu gabeko lurrera euria bezala, ikaslearen beharrari baino areago bere erosotasunari men egiten dion jardura. Ministerrak ez du pertsonaren ardurarik. Magisterrak, ostera, funtsezko gehigarri horixe dauka: pertsonak hezitzekoa.

Zaila da maisu edo maistra izatea. Are gehiago lan hori aintzat hartzen ez den gizarte batean. Dena den, argi eduki behar dugu benetako maisu eta maistrak ez dituen gizartea pobrea izango dela. Edukazio hitzak ere argi erakusten du maisu-maistraren lanaren nondik norakoa. *Ducere* hitzak gidatu adierazten du. Leku batetik besterako bidea erakutsi eta eraman.

Luze jarduteko gaia da, baina bego horretan gaurkoz.






Mari Carmen Garate Goiartzun

2023ko abuztuaren 13an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Fede, itxaropen
eta maitasunezko bakean atsedeen.***

Senideak



Maria Jesusa Cortaberria Ansola

2023ko abuztuaren 26an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



I.URTEURRENA

Eustakio Fermin Goñi Garmendia

2022ko abuztuaren 30ean hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, zapatuan,
irailaren 9an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak





Euskara ala ez Literaturan?

ELGOIBAR, urriak 7, larunbata (9:30-14:30)

Sarrera hitzaldia

Andu Lertxundi



Kulturak guztia alda dezake.

Euskal irakurlea: zelakoak gara? Zein gara? Zenbat gara?

Harkaitz Zubiri



Hitz egokiaren bila

Nolakoa da gure lengoia literarioa?
Nondik edaten dugu? Zer falta zaio?

Iñigo Aranbarri
Miren Amuriza



Itzulbideak, itzulinguruak eta itzulipurdiak
Ekimenak, esperientziak, erronkak.

Harkaitz Cano
Arrate Hidalgo
Uxue Alberdi



Nola sortzen da irakurlea?

Irakurzaletasunaren etapak.
Literaturzaletasunaren transmisioa: Nork-Nori-Nor?

Asier Serrano
Irati Jimenez
Jasone Osoro



Amaiera-testua: ZENBAT BIZI!

Oihana Arana



MEZA NAGUSIA

Uxue Alberdi
Iban Urizar Amorante



Pintxo-bazkaria (nahi duenarentzat)

Prezioa: 22 € / 30 € (pintxo-bazkarira geratuz gero)

OHARRA: areto nagusiko sarreran AZOKATXOA antolatuko dugu,
liburuak ikusteko eta erosteko aukerarekin.

Informazio gehiago eta izen-ematea:
www.elgoibarkoizarra.eus
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
943 741 626

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



DANOBATGROUP

Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia